

Artea ikasbidek 25 urte betetzen ditu

- Datak: 2023ko ekainaren 13tik irailaren 17ra
 - Kokapena: Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza gunea
 - BBK-k eta Guggenheim Bilbao Museoak sustatutako proiektua da, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordetzaren laguntza ere jasotzen du.
-
- *Artea ikasbide* programak 25 urte betetzen ditu 3.700 haur baino gehiagori eskola-curriculumeko ikasgaiak sendotzen lagundu izanaren pozarekin, arteak ahalbidetzen dituen bide berriak esploratuz eta sormena garatuz.
 - Edizio honetan Euskal Herriko sei ikastetxetako 118 ikaslek, sei eta hamabi urte bitartekoek, irudimenez beteriko lan harrigarriak sortu dituzte, Museoko Hezkuntza gunean ikusgai jarriak.
 - Ingurumen-jasangarritasuna aurtengo proposamen artistiko ugariren inspirazio-iturria izan da. Izan ere, uraren garrantzia, birziklatzea, ingurumenaren zaintza edo kontsumo arduratsua dira programan eztabaidatu diren gaietako batzuk. Gainera, erakusketan material jasangarriak erabili dira eta horrek karbono-aztarna % 80 murriztea ekarri du.
 - BBK-k lankidetzak historiko bat mantentzen du Guggenheim Bilbao Museoarekin programa berriak garatzeko helburuz; ikuspegi berritzaileak eta sortzaileak eskaintzen dituzten programak, arte garaikidea hobeto ezagutu eta ulertzeko, publiko mota guztien artean hedatzeko eta Bizkaiko gizartearen garapen sozial eta kulturala bultzatzeko.

Artea ikasbidek 25 urte

Artea ikasbide programak 25 urte betetzen ditu jarduera artistikoen bitartez lehen hezkuntzako 3.700 ikasle baino gehiagori eskola-curriculumeko ikasgaiak sendotzen lagundu izanaren pozarekin, kontuan hartuta, gainera, programak munduari modu sortzaile eta pertsonal batean begiratzen erakutsi diela haurrei, talde-lana, beste kultura batzuekiko bizikidetzak edo ingurumenarekiko errespetua bezalako balioak barneratuta.

25 urte hauetan Euskal Herri osoko 3.770 ikasle, 34 artista eta 148 ikastetxe lankidetzak estuan aritu dira Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Programa Publikoen Zuzendaritzarekin programa hau garatzeko.

25 urteko ibilbide honetan tokiko 34 artistak parte hartu dute programan, ikasturtean zehar ikastetxeetara joanez, ikasleak ezagutuz eta haien ingurunean sartuz. Haientzat esperientzia aberasgarria izan da, beren garapen pertsonalean nahiz profesionalean. Irakasleek, haien aldetik, programa honek ikasleen motibazioa eta ilusioa pizten dituela, irakasgaiak hobeto ulertzen laguntzen diela eta beren autoestimua sustatzen duela nabarmendu dute.

Artea ikasbide Guggenheim Bilbao Museoak eta BBK-k bultzatutako programa da, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordetzaren Hezkuntza Ikaskuntza eta Berrikuntza arloaren laguntza ere jasotzen du.

Artea beste irakasgai batzuk ulertzeko zeharkako tresna gisa erabiliz, ikasleek diziplina artistiko berriak deskubritzen dituzte, eta material berriekin objektuak sortzen dituzte; hizkuntza garatzen dute eta jendaurrean hitz egiteko gaitasuna indartzen dute, hitz berriak ezagutu ahala; eta taldean lan egiten ikasten dute. Azken gaitasun hori indartzea bereziki interesgarria da, kontuan hartuta ikastetxe parte-hartzaile askoren kultura-aniztasuna eta ama-hizkuntzen aniztasuna.

Artea ikasbide: 2022-2023

Aurten, *Artea ikasbide* programak gaurkotasuneko gai sozialei erreparatu die, besteak beste: planetaren zaintza, objektuen berrerabilera, kontsumo arduratsua, uraren garrantzia eta naturarekiko errespetua. Gainera, ikasleek beren emozioak adierazten eta kudeatzen ikasi dute, ongizate emozionala hobetu ahal izateko.

Proiektuetan ingurumen-jasangarritasuna kontuan hartzeak piztu duen interesa erakusketaren diseinuan ere islatzen da: papera birziklatzeko hondakin-materialaz egindako horma ekologikoak eraiki dira, eta biniloak eta beste plastiko batzuk baztertu dira, karbono-aztarna ahalik eta gehien murrizteko. Erakusketen museografian materialak berrerabiltzea eta birziklatzea da ingurumenaren alde Museoaren ekintza-planak sustatzen duen ekimenetako bat, 2030ean ingurumen-inpaktua murrizteko eta neutritasun klimatikoa lortzeko helburuarekin.

Programaren 2022-2023 edizioari amaiera emango dion erakusketa ekainaren 13tik irailaren 17ra egongo da zabalik Museoko Hezkuntza gunean.

“Mirarien kabineteen” antzera pieza ugariz osatutako instalazio bat, natura-zientzietako museo bat gogora ekartzen duena bere objektu bitxi eta espezie bakanekin; mural handi bat, irudiak uretan murgilduta dituen; emozioak sinbolizatzen dituzten koloretako esferak; edo berrerabiltzearen garrantziaz kontzientziazteko ekintza artistiko bat, ikastetxe osoa, familiak eta auzoa inplikatu zituen. Horiek dira *Artea ikasbide* programaren hogeita bosgarren edizioan parte hartu duten lehen hezkuntzako artisten proposamen irudimentsuetako batzuk.

Ibon Sáenz de Olazagoitiak, edizio honetan parte hartu duten sei artistetako batek, honela azaldu zuen Gasteizko Judimendi ikastetxean izandako esperientzia: “Beste garai batzuetako aurkitzaileen gisara, ikastetxeko neska-mutilak bidaia ezezagun baten parte izan dira. Bidaia horretan, inguratzen gaituen naturari buruzko xehetasun ezkutuak agerian uzten saiatu dira. Izan ere, gaizki tratatu arren, natura beti berpizten da aukeraren bat aurkitzen duen lekuan. Hamaika konturekin esperimentatu dute: mikroskopio pean zer dagoen; landare-jatorriko tinta naturalak nola egiten diren, eta horiek eguzkiaren argitan nola jokatzen duten; papera nola fabrikatzen eta birziklatzen den; izaki imajinarioak nola irudikatu, eta abar. Eta hori guztia xede jakin batekin egin dute: sortu duten ‘Mirarien kabinetea’ jakingura dagoen publikoarekin partekatzea. Beti dago astia beste errealitate batzuk posible direla imajinatzeke.”.

Elssie Ansareo, Ibon Garagarza, Zaloa Ipiña, Nerea Lekuona, Maider López eta Ibon Sáenz de Olazagoitia artistek, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Programa Publikoen Zuzendaritzarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sei ikastetxetako irakasleekin lankidetzan, edizio honetako sormen-proiektuak diseinatu eta dinamizatu dituzte. Gehienek gizarte- eta natura-zientzietako irakasgaiak indartu dituzte ingurumen-jasangarritasunean eta kontsumo arduratsuan oinarritutako proiektuekin; eta emozioak adierazteari eta kudeatzeari buruzko hausnarketa ere egin dute. Proiektu guztiak ikuspegi artistikotik landu dituzte helburu batekin: ikasleen jakin-mina piztea eta bai inprobisazioa bai errealtateari begiratzeko modu berriak esploratzeko nahia sustatzea. Zaloa Ipiña artistak hitz hauekin azaldu du bere lan-prozesua: “Zirraragarria bezain zaila izan da emozioak adieraztea, ezagutzea, asmatzea, irudikatzea, ulertzea eta ulertaraztea. Sarri askotan nola adierazi asmatu ezinik ibiltzen garen sentimenduak identifikatzeko hamaika modu topatu ditugu. Aurpegiari, gorputz-adierazpenari, keinuei, mugimenduei, koloreei, hitzei, galderei... guzti-guztiari erreparatu diogu emozioak aztertzeke, eta artearen bidez landu ditugu gero; ez dut horretarako modu hoberik ikusten”.

Sei proiektu artistiko irudimentsu eta harrigarri

Artea ikasbide erakusketan parte hartzen duten sei eta hamabi urte bitarteko 118 “artistak” Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

“Natura agerian” da Gasteizko Judimendi ikastetxean natura-zientzietako irakasgaia sendotzeko garatutako proiektuaren gaia. Ibon Sáenz de Olazagoitiaren laguntzarekin, ikasleek natura behatzen jardun zuten oharkabea pasatzen diren xehetasunak erakutsi eta ikusezina agerian jartzeko. Natura-zientzietako museo bat bisitatu zuten, bertako funtsak nola sailkatzen diren ikasi zuten, eta ezagutza horren ondorioz, eskala handiko instalazio kolektibo bat egin zuten, asmatutako irudiz, inoiz ikusi gabeko espeziez, ezkutuko testuraz nahiz handiagotutako intsektuz osatua, garai bateko “Mirarien kabineteen” gisara.

Laukizko Lauaxeta eskolako 1. eta 6. maila bitarteko ikasleek artista alemaniar baten aipua hartu zuten abiapuntutzat: “Ur-esferen bidez ikusten dugu mundua”. Ibon Garagarzaren laguntzarekin, uraren garrantziaz kontzientziaztearen inguruan lan egin zuten, eta urpean murgildutako irudien mural handi bat margotu zuten, gizakiok neurri handi batean urez osatuta gaudela sinbolizatzeko. Proiektua burutzeko, taldeak ekintza kolektibo bat egin zuen; beren ingurune naturaletik ibilbide pausatua bat egin zuten zuhaitz-hostoetatik erortzen zen euri-ura eta herriko erreka ura biltzeko, eskolako landareak ureztatzeko helburuarekin.

Bilboko San Pedro Apóstol ikastetxeko 2. mailako hurrek Elssie Ansareorekin batera lan egin zuten materialak berrerabiltzeko proiektu batean. Proiektu horrek ikastetxe osoa, haien familiak eta auzoa bera inplikatu zituen. Zenbait astez hondakin-materialak biltzen aritu ziren ondoren haiek eraldatu eta margotzeko, eta kode batzuk sortu zituzten naturako elementuak aditzera emateko. Azkenik, ekintza performatibo bat egin zuten ikastetxeko jolastokian, taldearen berdintasuna, inklusioa eta bizikidetzaren bultzatzeko.

Donostiako Presentación de María ikastetxeko 6. mailako taldeak emozioak adierazten eta kudeatzen ikasi zuten “Lehoia naiz, zuhaitza naiz” izeneko proiektu baten bidez. Hurrek, Maider Lópezen laguntzarekin,

animaliak sailkatu zituzten beren ezaugarrien arabera: lagunkoiak, basatiak, lasaiak, bizkorak edo pozoitsuak; eta haiekin identifikatzera jolastu ziren, emozioei izenak eta adjektiboak jarritz. Kolore desberdineko esferak sortu zituzten eta emozio bakoitzari zein kolore eman adostu zuten. “Izugarri gustatu zait zein lasaigarria zen jarduerak egitea; globoak ziren onena, lasaitu egiten ninduten eta, nahiz eta pixka bat estresatu ninduen eskuak gomaz betetzeak. Mainerrekin lan egitea asko gustatu zitzaidan”. Horrela adierazten zuen taldeko neska batek bere esperientzia.

Bilboko Amor Misericordioso ikastetxeko 5. mailako ikasleek ingurumena zaintzeari buruzko hausnarketa bat egin zuten artearen bidez. Egungo beharrak asetzeko baliabideak nola kudeatu eztabaidatu zuten eta, Nerea Lekuonaren laguntzarekin, egunero pilatzen dituzten hondakinak gorde eta aztertu zituzten, baita haien argazkiak egin ere. Ingurumen-jasangarritasunari buruz ikasteaz gain, dinamikak matematika erabiltzeko aukera ere eman zien: sortzen dituzten hondakin-kopuruak kalkulatu zituzten gramotan eta kilotan.

Bilboko Ingeniero José Orbegozo ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleen egitekoa emozioak identifikatzea, kudeatzea eta plastikaren bidez islatzea izan zen eta, era berean, baita ikasgelan errespetua eta inklusioa sustatzea ere, taldeak berak duen kultura-aniztasuna ikasbide hartuta. Zaloa Ipiñaren laguntzarekin, haurrek sentimenduen zerrendak idatzi zituzten, eta ahoak marraztu zituzten keinu desberdinak adierazteko: haserrea, poza, amorrua nahiz pena. Gainera, agurtzeko erabili ohi ditugun moduen inguruan hausnartu zuten eta, besteak beste, aukera hauek iradoki zituzten: “Zein da egunean zehar entzun duzun gauzarik politena?” edo “Norekin uste duzu porta zaitezkeela hobeto gaur?”.

Bilbo-New York elkartrukea

Bilboko San Pedro Apóstol ikastetxeko ikasgela bat eta New Yorkeko Queens auzoko 219 Ikastetxe Publikoko beste bat, Elsie Ansareo eta Laura Kelly artisten laguntzarekin, sei astez komunikatu dira posta elektronikoz eta zuzeneko bideo-deien bidez, eta horrela, testu-mezuak eta irudiak, marrazkiak eta argazkiak elkarri bidalita, nork bere proiektu artistikoari buruzko informazioa partekatu elkarrekin. Bi taldeak gaztelaniaz eta ingelesez komunikatu dira, hizkuntza eta kultura desberdinen ezagutza sustatzeko.

1999az geroztik, *Artea ikasbide* programak arte-hezkuntzaren bidez Euskal Herriko eta New Yorkeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean kultur trukean aritzeko aukera eman die bertan parte hartu duten ikasle, artista eta irakasleei.

Guggenheim Bilbao Museoan martxan jarri zenetik 25 urte igaro direnean, *Artea ikasbide* programak oraindik ere agerian uzten du eskola-curriculumak artearen bidez hobetzeko duen izugarritzko potentziala. Hezkuntza-programa hori New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museumen sortu zen: Natalie K. Lieberman mezenasak jarri zuen abian 1970ean, hiriko Lehen Hezkuntzako eskola publikoetan artearen irakaskuntza kendu izanaren erantzun gisa.

BBK-k lankidetzak historikoa mantentzen du Guggenheim Bilbao Museoarekin programa berriak garatzeko helburuz: ikuspegi berritzaileak eta sortzaileak eskaintzen dituzten programak, arte garaikidea hobeto

ezagutu eta ulertzeko, publiko mota guztien artean hedatzeko eta Bizkaiko gizartearen garapen sozial eta kulturala bultzatzeko.

BBK bere inbertsioen bidez Bizkaiko ekonomia, hazkunde ekonomikoa eta enplegua sustatzen laguntzen duen eragile ekonomiko/finantzario/soziala da; Kutxabank da horietan nagusia, haren kontrol-akzioduna baita (akzioen % 57 du), besteak beste. Bere inbertsioetatik lortzen dituen dibidenduekin, erakundearen Gizarte Ekintzaren garapena finkatu eta bermatzen du; BBKren Gizarte Ekintza estatuko handiena da biztanleko, eta bigarrena tamainari dagokionez. Balio sozial eta ekonomiko iraunkorra sortzen dituen Gizarte Ekintza da, gizarte-eragina maximizatzea helburu duena eta bizkaitar guztiak dituen onuradun.

Azaleko irudia:

Turtziozko Eskola ikastetxeko ikasleek egindako lana

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:

Arteak

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Musoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 359 008, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Ikastetxea: Judimendi, Vitoria- Gasteiz

Irakaslea: Alazne Otegi

Artista: Ibón Sáenz de Olazagoitia



Ikastetxea: Lauaxeta eskola, Laukiz

Irakasleak: Iratxe Urresti, Miren Karmele Hurtado de Saratxo,

Virginia Varona, Daniel Jiménez, Itxasne Lauzirika

Artista: Ibon Garagarza



Ikastetxea: San Pedro Apóstol, Bilbo

Irakaslea: Lara Hernández, Laura Zabala, Aitor Castillo

Artista: Elsie Ansareo



Ikastetxea: Presentación de María, Donostia

Irakaslea: Itziar Galarraga

Artista: Maider López



Ikastetxea: Amor Misericordioso, Bilbao

Irakasleak: Laura Zabala, Aitor Uriarte, Lara Hernández

Artista: Nerea Lekuona



Ikastetxea: Ingeniero José Orbegozo, Bilbao

Irakasleak: Itxaso Martín, Nagore Madariaga

Artista: Ibón Sáenz de Olazagoitia

